ura
ur agentzia
agencia vasca del agua

| | |
|---|---|
| **URAREN EUSKAL AGENTZIAREN (URA) ETA AZPEITIKO UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA-PROTOKOLO OROKORRA, AIU 20 ETXEBELTZ-IZARRA EREMUA URBANIZATZEKO PROIEKTUAREN ESPARRUA UHOLDEETATIK BABESTEKO** | **PROTOCOLO GENERAL DE COLABORACIÓN ENTRE LA AGENCIA VASCA DEL AGUA Y EL AYUNTAMIENTO DE AZPEITIA PARA LA DEFENSA FRENTE A INUNDACIONES EN EL ÁMBITO DEL «PROYECTO DE URBANIZACIÓN DEL ÁREA AIU 20 ETXEBELTZ-IZARRA»** |
| Azpeitian, 2016ko apirilaren 11n | En Azpeitia, a 11 de abril de 2016 |
| **ELKARTU DIRA** | **SE REUNEN** |
| Iñigo Ansola Kareaga jauna, Uraren Euskal Agentziaren zuzendari nagusia den aldetik, erakunde horren lege-ordezkaritzan, Uraren Euskal Agentziaren Estatutuak onartzen dituen martxoaren 10eko 25/2015 Dekretuaren 7.2.g) artikuluak emandako ahalmenaren indarrez. | Don Iñigo Ansola Kareaga, en su calidad de Director General de la Agencia Vasca del Agua, en representación legal de dicho Organismo, y en virtud de la atribución que le confiere el artículo 7.2.g) del Decreto 25/2015, de 10 de marzo, por el que se aprueban los Estatutos de la Agencia Vasca del Agua. |
| Eneko Etxeberria jauna, Azpeitiko Udaleko alkatea, Toki araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21. artikuluak Udala ordezkatzeko emandako lege-gaitasuna baliaturik. | Don Eneko Etxeberria, Alcalde del Ayuntamiento de Azpeitia, en ejercicio de la capacidad legal de representación del Ayuntamiento que le confiere el artículo 21 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local. |
| Bi aldeek lankidetza-protokolo nagusi honetarako legezko gaitasuna onartzen diote elkarri, eta xede horretarako. | Ambos intervinientes se reconocen mutuamente capacidad legal para celebrar el presente Protocolo General de Colaboración y a tal efecto |

ur agentzia
agencia vasca del agua

| HONAKO HAU ADIERAZTEN DUTE | EXPONEN |
|---|---|
| Lehena.- Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 10. artikuluaren 11. eta 33. paragrafoekin bat, autonomia-erkidegoari dagokio, duen lurralde-eremuan, aprobetxamendu hidraulikoen gaineko eskumen osoa, urak Euskal Autonomia Erkidegotik pasatzen badira osoki, bai eta obra publikoen gaineko eskumena ere, haiek ez badira Estatuarentzat interes orokorrekotzat jotzen legez, edo beste autonomia-erkidego batzuetan eragiten ez badute. | Primero.- Que, conforme al artículo 10, párrafos 11 y 33, del Estatuto de Autonomía para el País Vasco, corresponde a la Comunidad Autónoma, dentro de su territorio, la competencia exclusiva en aprovechamientos hidráulicos, cuando las aguas discurran íntegramente dentro del País Vasco, así como en obras públicas que no tengan la calificación legal de interés general del Estado o cuya realización no afecte a otras Comunidades Autónomas. |
| Bigarrena.- Uraren Euskal Agentziak dituen funtzioen artean, bere eskumeneko lurralde-esparruaren barneko jabari publiko hidraulikoa administratzea eta kontrolatzea daude, baita Uren Legearen testu bategina onartzen duen uztailaren 20ko 1/2001 Errege Dekretu Legegilearen 23. artikuluaren indarrez Toki Korporazioekin izenpetutako hitzarmenetatik ondorioztatzen direnak ere. | Segundo.- Que entre las funciones de la Agencia Vasca del Agua se encuentran la administración y control del dominio público hidráulico dentro de su ámbito territorial de competencia, así como las que deriven de los convenios suscritos con las Corporaciones Locales en virtud del artículo 23 del Real Decreto Legislativo 1/2001, de 20 de julio, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Aguas. |
| Hirugarrena.- Urtarrilaren 8ko 1/2016 Errege Dekretuak, Kantauri Ekialdeko Mugapeko alde espainiarreko Plan Hidrologikoa onartzen duenak, bere 42.3 artikuluan ezartzen du administrazio hidraulikoak administrazio autonomikoekin eta tokikoekin lankidetzako protokolo orokorrak sustatuko dituela, eta horien helburuak honakoak izango direla: uholdeak izateko arriskua dagoen zonako erabilerak antolatzea ahalbidetzen duten programak ezartzea, hain zuzen horien bidez, | Tercero.- Que el artículo 42.3 del Real Decreto 1/2016, de 8 de enero, por el que aprueba el Plan Hidrológico de la parte española de la Demarcación del Cantábrico Oriental, establece que la Administración Hidráulica promoverá Protocolos Generales de Colaboración con las Administraciones Autonómicas y Locales al objeto de establecer los programas de medidas que posibiliten una ordenación de los usos en la zona inundable que contribuyan, además de a la protección de |

| | |
|---|---|
| pertsonak eta ondasunak babesteaz gain ibai batean edo ibai-tarte batean uholdeak direnean, ur jabari publikoaren egoera babesteko, ur-ekosistemak hondatzea prebenitzeko, ekosistema horiek hobetzen laguntzeko, eta ur-korronteen erregimena babesteko, betiere bultzatuz ibilgu ondoko lursailek lagundu dezaten bai emariak bai horiek daramaten karga solidoa laminatzen. | las personas y bienes frente a inundaciones de un río o tramos de río, a la consecución de los objetivos de preservar el estado del dominio público hidráulico, prevenir el deterioro de los ecosistemas acuáticos, contribuyendo a su mejora, y proteger el régimen de las corrientes en avenidas, favoreciendo la función de los terrenos colindantes con los cauces en la laminación de caudales y de la carga sólida transportada. |
| Laugarrena.- Lankidetzako Protokolo Orokor hau Azpeitiko udal-mugartearen barnean AIU 20 Etxebeltx-Izarra Eremua Urbanizatzeko Proiektuak eragiten dion esparrura zuzentzen da. | Cuarto.- Que el presente Protocolo General de Colaboración se centra en el ámbito afectado por el «Proyecto de Urbanización del Área AIU 20 Etxebeltx-Izarra», dentro del término municipal de Azpeitia. |
| Bosgarrena.- Azpeitiko Udalak Azpeitiko udalerriko hirigintza eta babes zibileko plangintza-eskumenak egikaritzen ditu, besteak beste, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25. artikuluan, Toki Administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasunari buruzko abenduaren 27ko 27/2013 Legearen lehenengo artikuluko zortzigarren zenbakiak sartutako erredakzioarekin bat, ezartzen den moduan. | Quinto.- Que el Ayuntamiento de Azpeitia ejerce, entre otras, las competencias de planeamiento urbanístico y protección civil en el municipio de Azpeitia, tal y como establece el artículo 25 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local (según redacción introducida por el número ocho del artículo primero de la Ley 27/2013, 27 diciembre, de racionalización y sostenibilidad de la Administración Local). |
| Seigarrena.- Xede horrekin, Azpeitiko Udalak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak lankidetza teknikoko hitzarmenak izenpetu ditzakete, hain zuzen ere Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 57. artikuluak, Toki Administrazioaren arrazionalizazio eta | Sexto.- Que a este objeto, según recoge el artículo 57 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local, según redacción introducida por el número dieciséis del artículo primero de la Ley 27/2013, 27 diciembre, de racionalización y sostenibilidad de la Administración Local, el |

ura
ur · agentzia
agencia vasca del agua

iraunkortasunari buruzko abenduaren 27ko 27/2013 Legearen lehenengo artikuluko hamaseigarren zenbakiak sartutako erredakzioarekin bat, jasotzen duenaren arabera.

Zazpigarrena.- Urtarrilaren 16ko 20/2016 Errege Dekretuak aldarrikatutako Kantauri Ekialdeko Mugapeko Uholdeen Arriskua Kudeatzeko Planaren arabera, Azpeitiko hirigunea ES.018-GIP-URO-02 Uholde Arrisku Handiko Eremuaren (UAHE) barnean dago. Uholde Arriskua Kudeatzeko Plan (UAKP) horrek zenbait neurri zehazten ditu; neurri horien helburua Azpeitiko UAHEko egungo uholde-arriskua murriztea da, eta haien artean babesteko egiturazko jarduerak sartzen dira. Azterketa teknikoen arabera, Azpeitiko UAHEren babes helburu optimoa 100 urteko errepikatze-denbora duen uholdea da. UAKPren 3. eranskinaren arabera, Etxebeltz-Izarra zonaldeko eskuinaldean beharrezkoa da babes-horma bat eraikitzea 100 urteko errepikatze-denborako uholdearen ondorioz urek gainezka egin ez dezaten eta, hala, Azpeitiko hirigunean uholdea izateko arriskua murriztearren.

Zortzigarrena.- AIU 20 Etxebeltx-Izarra Eremua Urbanizatzeko Proiektuaren barnean Urola ibaiaren gainean zubi berri bat eraikitzea sartzen da, bai eta ertz bietan hirigintza-jarduketak egitea ere. Azpeitiko Udalak eta Uraren Euskal Agentziak proiektu honen ezaugarri teknikoak adostu dituzte, zubi berriak

Ayuntamiento de Azpeitia y la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco pueden suscribir convenios de cooperación técnica.

Séptimo.- Que de acuerdo con el Plan de Gestión del Riesgo de Inundación de la Demarcación Hidrográfica del Cantábrico Oriental, promulgado por el Real Decreto 20/2016, de 16 de enero, el núcleo urbano de Azpeitia se encuentra afectado por el Área de Riesgo Potencial Significativo (ARPSI) ES.018-GIP-URO-02. El citado Plan de Gestión del Riesgo de Inundación (PGRI) define una serie de medidas que tienen por objeto reducir el actual riesgo de inundación en el ARPSI de Azpeitia, entre las que se incluyen actuaciones estructurales de defensa. De acuerdo con los estudios técnicos, el objetivo de defensa óptimo del ARPSI de Azpeitia es la avenida de periodo de retorno de 100 años. De acuerdo con el Anejo 3 del PGRI, en la zona de Etxebeltx-Izarra es necesaria la construcción de un muro de protección en la margen derecha para evitar los desbordamientos de la avenida de periodo de retorno de T100 y reducir así la inundabilidad del casco urbano de Azpeitia.

Octavo.- Que El «Proyecto de Urbanización del Área AIU 20 Etxebeltx-Izarra» incluye la construcción de un nuevo puente sobre el río Urola, así como actuaciones urbanísticas en ambas márgenes. El ayuntamiento de Azpeitia y la Agencia Vasca del Agua han consensuado

Orio kalea, 1-3
01010 Vitoria – Gasteiz
Telf. 945 011 700 – Fax 945 011 701
www.uragentzia.net

| | |
|---|---|
| sortutako oztopoa murrizteko eta UAKPn aurreikusitako babesa egiteko Urola ibaiaren eskuinaldeko esparru horretan. | las características técnicas de este proyecto para minimizar la obstrucción generada por el nuevo puente y ejecutar la defensa prevista en el PGRI en la margen derecha del río Urola en este ámbito. |
| Aurreko guztian oinarrituz, Uraren Euskal Agentziako zuzendari nagusiak eta Azpeitiko Udaleko alkateak | Sobre la base de todo lo anterior, el Director General de la Agencia Vasca del Agua y el Alcalde del Ayuntamiento de Azpeitia. |
| **HITZARTZEN DUTE** | **ACUERDAN** |
| Bi administrazioek Lankidetzako Protokolo Orokor honetako klausulak betetzea jabari publiko hidraulikoa babesteko, eta Azpeitiko udal-mugartearen barnean, AIU 20 Etxebeltx-Izarra Eremua Urbanizatzeko Proiektuan, uholdeak izateko arriskua dagoen zonaldean zenbait jarduketa gauzatzeko. | El cumplimiento, por cada una de las dos Administraciones, según corresponda, del clausulado de este Protocolo General de Colaboración para la protección del dominio público hidráulico y la realización de actuaciones en una zona inundable en el Proyecto de urbanización del Área AIU 20 Etxebeltz-Izarra, en el término municipal de Azpeitia. |
| **KLAUSULAK** | **CLÁUSULAS** |
| **LEHENENGOA: PROTOKOLOAREN XEDEA** | **PRIMERA: OBJETO DEL PROTOCOLO** |
| Lankidetzako Protokolo Orokorraren helburua da, alde batetik, Azpeitiko Udalak AIU 20 Etxebeltx-Izarra Eremua Urbanizatzeko Proiektuari loturik zertuko dituen hirigintza-jarduketak koordinatzea, eta bestetik, Azpeitiko UAHE uholdeetatik babestea, Ekialdeko Kantauriko UAKPn ezarritako esparruarekin bat etorriz. | El objeto de este Protocolo General de Colaboración es coordinar las actuaciones urbanísticas municipales del ayuntamiento de Azpeitia relacionadas con el «Proyecto de Urbanización del Área AIU 20 Etxebeltz-Izarra» y la defensa frente a inundaciones en el ARPSI de Azpeitia, de acuerdo con el marco establecido en el PGRI del Cantábrico Oriental. |

| BIGARRENA: EGIN BEHARREKO JARDUKETAK | SEGUNDA: ACTUACIONES A EJECUTAR |
|---|---|
| Azpeitiko Udalak zaindu egingo du AIU 20 Etxebeltx-Izarra Eremua Urbanizatzeko Proiektua Protokolo honen eranskinetan zehaztutako diseinuaren arabera gauzatzea. | El Ayuntamiento de Azpeitia velará por la ejecución del «Proyecto de Urbanización del Área AIU 20 Etxebeltz-Izarra» de acuerdo con el diseño definido en los anejos del presente Protocolo. |
| **HIRUGARRENA: INFORMAZIO TOPOGRAFIKOA** | **TERCERA: INFORMACIÓN TOPOGRÁFICA** |
| Azpeitiko Udalak konpromisoa hartzen du AIU 20 Etxebeltx-Izarra Eremua Urbanizatzeko Proiektuko obrak amaitzen direnean jasotze topografikoko artxibo digitalen kopia bat emateko Uraren Euskal Agentziari; bertan, urbanizazioaren eta zubi berriaren azkeneko egoera adieraziko da. | Al término de las obras del «Proyecto de Urbanización del Área AIU 20 Etxebeltz-Izarra», el ayuntamiento de Azpeitia se compromete a entregar a la Agencia Vasca del Agua una copia de los archivos digitales del levantamiento topográfico que refleje el estado final de la urbanización y del nuevo puente. |
| **LAUGARRENA: GAITASUN HIDRAULIKOARI EUSTEA** | **CUARTA: MANTENIMIENTO DE LA CAPACIDAD HIDRÁULICA** |
| Azpeitiko Udalak konpromisoa hartzen du AIU 20 Etxebeltx-Izarra Eremua Urbanizatzeko Proiektuaren barnean egin den zubi berriaren inguruko gaitasun hidraulikoari eusteko.<br><br>Gaitasun hidraulikoari eusteko jarduketa horiek aurrez Uraren Euskal Agentziak (URA) emandako baimena beharko dute. | El ayuntamiento de Azpeitia se compromete al mantenimiento de la capacidad hidráulica en el entorno del nuevo puente ejecutado dentro del «Proyecto de Urbanización del Área AIU 20 Etxebeltz-Izarra».<br><br>Dichas actuaciones de mantenimiento de la capacidad hidráulica requerirán de la previa autorización por parte de la Agencia Vasca del Agua (URA). |
| **BOSGARRENA: JARRAIPEN-BATZORDEA** | **QUINTA: COMISIÓN DE SEGUIMIENTO** |
| Uraren Euskal Agentziako eta Azpeitiko Udaleko bina ordezkarik osatutako jarraipen- | Se crea una Comisión de Seguimiento compuesta por dos representantes de la |

batzorde bat sortuko da, Lankidetzako Protokolo Orokorraren garapena sustatu eta zaintzeko asmoz, eta haren garapenean sor daitezkeen interpretazio eta betetze arazoak konpontzeko. Jarraipen-batzordea gutxienez bi hilabetetik behin bilduko da normalean, jarduketen garapena ebaluatzeko helburuarekin, eta era ezohikoan, bertako kideren batek hala eskatzen badu.

Batzorde horren funtzionamenduari buruz berariaz ezarri ez den guztian, bete egingo dira Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legeak, azaroaren 26koak, II. Tituluaren II. Kapituluan kide anitzeko organoei buruz aurreikusten dituen arauak.

**SEIGARRENA: INDARREAN SARTZEA ETA IRAUPENA**

Lankidetzako Protokolo Orokor hau sinatzen den egun berean sartuko da indarrean, eta iraupen mugagabea izango du, harik eta AIU 20 Etxebeltx-Izarra Eremua Urbanizatzeko Proiektua protokoloaren klausulei egokitzen zaien arte edo protokoloa bera iraungitzen den arte zazpigarren klausulan jasotako baldintzen arabera.

Aldeetako batek salatzen badu, salaketa formalizatzeko jakinarazpen bat bidaliko zaio beste aldeari; horrek ez die, baina, eragingo

Agencia Vasca del Agua y dos representantes del Ayuntamiento de Azpeitia, con el objeto de impulsar y velar por el desarrollo de este Protocolo General de Colaboración, y resolver los problemas de interpretación y cumplimiento que pudieran plantearse durante su desarrollo. La Comisión de Seguimiento se reunirá con carácter ordinario, al menos, cada dos meses, a fin de evaluar el desarrollo de las actuaciones y, con carácter extraordinario, siempre que lo solicite alguno de sus miembros.

En todo lo no específicamente previsto sobre el funcionamiento de esta Comisión, serán de aplicación las normas sobre órganos colegiados previstas en el Capítulo II del Título II, de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

**SEXTA: ENTRADA EN VIGOR Y DURACIÓN**

El presente Protocolo General de Colaboración surtirá efecto desde el día de su firma y tendrá vigencia indefinida hasta que el «Proyecto de Urbanización del Área AIU 20 Etxebeltz-Izarra» se adapte a su clausulado o se produzca su extinción en los términos contemplados en la Cláusula Séptima.

La denuncia por una de las partes deberá formalizarse dirigiendo una notificación en tal sentido a la otra, sin que afecte a las acciones pendientes o en curso de ejecución que no fuesen expresamente rescindidas por ambas

| | |
|---|---|
| egiteko edo egiten ari diren eta entitate biek berariaz atzera bota ez dituzten ekintzei. | entidades. |
| Lankidetzako Protokolo Orokorra aldatu ahal izango da, dagokion eranskina formalizatuz horretarako, bi aldeek hala adosten badute. | Este Protocolo General de Colaboración podrá ser modificado de común acuerdo cuando lo requieran las partes, mediante la formalización de la correspondiente adenda. |
| Lankidetzako Protokolo Orokorraren indarraldia eteteko arrazoia hasieran aurreikusitako jarduketak bete ez izana izan beharrean besteren bat denean, iraungitzeko arrazoi zehatzaren arabera ezarriko da, eta garatzen ari diren jarduketen egoera partikularra ikusirik, jarduketak amaitzeko modua. | Cualquiera que sea la causa de cese de la vigencia de este Protocolo General de Colaboración diferente al cumplimiento de las actuaciones inicialmente previstas, se establecerá, en función de la causa concreta de extinción y a la vista de la situación particular de las actuaciones en curso, la forma de terminación de las mismas |
| **ZAZPIGARRENA: IRAUNGITZEKO ARRAZOIAK** | **SEPTIMA: CAUSAS DE EXTINCIÓN** |
| Honako hauek dira Lankidetzako Protokolo Orokor hau iraungitzeko arrazoiak: | Son causas de extinción de este Protocolo General de Colaboración las siguientes: |
| a) Alderdi izenpetzaileek adostasunez hala erabakitzea.<br>b) Hitzarmena iraungitzea dakarten legezko xedapenak edo arauzkoak indarrean sartzea.<br>c) Aldeetako batek behar bezala arrazoitutako erabakia. | a) El mutuo acuerdo de las partes que lo suscriben.<br>b) La entrada en vigor de disposiciones legales o reglamentarias que determinen su extinción.<br>c) La decisión motivada de una de las partes. |
| Gainera, bi aldeetako edozeinek Lankidetzako Protokolo hau suntsiarazi ahal izango du, besteak klausularen bat betetzen ez badu, edo haren edukiaren mamia aldatzen badu. Ez-betetze hori gutxienez hilabete lehenago jakinarazi beharko zaio bete ez duen aldeari, aurretiko abisu bidez eta era frogagarrian, eta | Asimismo, también cualquiera de las partes podrá resolver el presente Protocolo General de Colaboración, debido al incumplimiento de la otra, respecto a alguna de las cláusulas del mismo, o la alteración esencial de su contenido. El incumplimiento deberá ser comunicado a la parte incumplidora, mediante preaviso, de forma fehaciente, con al menos |

| | |
|---|---|
| hari aurrez entzunaldia emanez. Nolanahi ere, suntsiarazte horrek ez dio eragingo gauzatze bidean diren jarduerak amaitzeari.<br><br>Suntsiarazteak Uraren Euskal Agentziak zehapen-espediente bat irekitzea ekar dezake, eta baita obrak etetea ere, obra horiek proiektua betetzen ez badute eta Uraren Euskal Agentziaren berariazko baimenik ez badute.<br><br>**ZORTZIGARRENA: JURISDIKZIOA**<br><br>Lankidetzako Protokolo Orokor honen interpretazio, betetze eta eraginkortasunaren inguruan sor daitezkeen auziak Administrazioarekiko Auzien Jurisdikziokoak izango dira; nolanahi ere, bosgarren klausulak xedatzen duena bete beharko da.<br><br>Aurreko guztiarekiko adostasuna adieraziz, dokumentu honen bi ale sinatu dituzte, | un mes de antelación, y previa audiencia de la misma. No obstante, esta resolución no afectará a la finalización de las actividades que estuvieran en ejecución.<br><br>La extinción podrá llevar aparejada la incoación de un expediente sancionador por parte de la Agencia Vasca del Agua con, en su caso, paralización de las obras, si estas no se ajustan al proyecto y no cuentan con la conformidad expresa de la Agencia Vasca del Agua.<br><br>**OCTAVA: JURISDICCIÓN**<br><br>Las cuestiones litigiosas que puedan surgir en la interpretación, cumplimiento y eficacia del presente Protocolo General de Colaboración, sin perjuicio de lo dispuesto en la cláusula quinta, serán de conocimiento y competencia del Orden Jurisdiccional Contencioso-Administrativo.<br><br>Manifestando su conformidad con todo lo anterior, firman por duplicado el presente documento, |

ZUZENDARI NAGUSIA
ura
ur agentzia
agencia vasca del agua
DIRECTOR GENERAL

Iñigo Ansola Kareaga

Uraren Euskal Agentziaren
Zuzendari Nagusia

Eneko Etxeberria Bereziartua

Azpeitiko Udalaren Alkatea